# Bizkaiko historia ekonomikoaren ikuspegi bat 1857–1905

BBVA Artxibo Historikoaren eta Bildumaren Funtsak

# Una visión de la historia económica de Vizcaya 1857–1905

Fondos del Archivo Histórico y la Colección BBVA


BBVA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

ARTXIBO
EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOA




# Una visión de la historia económica de Vizcaya 1857–1905

Fondos del Archivo Histórico
y la Colección BBVA

Esta exposición pretende establecer un relato de la historia económica de Vizcaya entre 1857 y 1905, poniendo de relieve sus momentos más representativos y su influencia en el desarrollo de la economía y de la sociedad vascas del siglo XIX.

La muestra está organizada en seis secciones, cada una de ellas ilustrada mediante un conjunto de documentos, fotografías, objetos y obras de arte pertenecientes al Archivo Histórico BBVA –primer archivo histórico de banca privada creado en España– y a la Colección BBVA, que cuenta ya con una trayectoria de 166 años. Con este material se propone un recorrido cronológico desde los orígenes del Banco de Bilbao y el posterior nacimiento del Banco del Comercio hasta la fundación del Banco de Vizcaya, todos ellos fundamentales para comprender la esencia de la actividad económica del País Vasco.

# Bizkaiko historia ekonomikoaren ikuspegi bat 1857–1905

BBVA Artxibo Historikoaren
eta Bildumaren Funtsak

Erakusketa honek Bizkaiko 1857-1905 bitarteko historia ekonomikoaren kontakizun bat egitea du helburu, historia horretako unerik adierazgarrienak eta XIX. mendeko euskal ekonomiaren eta gizartearen garapenean izandako eragina nabarmenduta.

Erakusketa sei ataletan antolatuta dago, eta, atal bakoitza, BBVA Artxibo Historikoko eta BBVA Bildumako dokumentu, argazki, objektu eta artelanen bidez ilustratuta. Artxibo hori Espainian banketxe pribatu batek sortutako lehen artxibo historikoa da, eta 166 urteko ibilbidea du egina dagoeneko. Material hori bilduta, ibilbide kronologiko bat eskaintzen dugu, Banco de Bilbaoren jatorritik hasi, Banco del Comercioren sorrerarekin jarraitu, eta Banco de Vizcayaren fundaziora iritsi arte. Izan ere, erakunde finantzario horiek guztiak ezinbestekoak dira Euskadiko jarduera ekonomikoaren funtsa ulertzeko.

# Índice


**Orígenes del Banco de Bilbao** 6

**El Banco de Bilbao como banco de emisión de moneda** 12

**La industrialización** 16

**La Tercera Guerra Carlista: el Sitio de Bilbao** 32

**Fundación del Banco del Comercio** 36

**Fundación del Banco de Vizcaya y fusión del Banco del Comercio y el Banco de Bilbao** 40


# Aurkibidea


**Banco de Bilbaoren jatorria** 7

**Banco de Bilbao, dirua jaulkitzeko banku gisa** 13

**Industrializazioa** 17

**Hirugarren Karlistaldia: Bilboko setioa** 33

**Banco del Comercioren fundazioa** 37

**Banco de Vizcayaren fundazioa eta Banco del Comercioren eta Banco de Bilbaoren bat-egitea** 41

# Orígenes del Banco de Bilbao

La segunda mitad del siglo XIX es un periodo de grandes cambios para la economía vizcaína, que se halla en pleno proceso de transformación gracias, entre otros factores, a la publicación de la Ley de Bancos de Emisión y Sociedades de Crédito de 1856, que resulta primordial para la modernización del sistema financiero.

Un año después, en 1857, se funda oficialmente el Banco de Bilbao, primer banco creado en Vizcaya, que se convertirá en pieza clave para el devenir económico de la región. Por entonces la ciudad cuenta con poco más de diecisiete mil habitantes, pero a partir de ese momento se pone en marcha un plan de expansión urbanística que redunda en la promoción sociocultural de la villa, tal y como recrean las obras de Manuel Losada expuestas en este apartado (fig. 1).

La primera Junta General de Accionistas se celebra el 3 de junio de 1857. En la muestra se exhibe la escritura fundacional, que, con fecha de 24 de agosto, señala un hito trascendental en el inicio de las operaciones, así como el primer extracto de inscripción del Banco de Bilbao (fig. 2); muy pronto se consolidará su posición como institución financiera pionera en su tiempo.

Desde su constitución, el Banco de Bilbao había planteado la creación de una caja de ahorros propia, algo no habitual en la época; se abrirá entre 1860 y 1861, convirtiéndose en la primera caja de ahorros de un banco en España. Su objetivo principal era dotar de herramientas financieras a los pequeños y medianos inversores locales, lo que les permitió extender sus cartillas por toda la provincia y sentar las bases de la futura red de sucursales de la entidad en el País Vasco. Como dato curioso, la exposición reúne varias nóminas, datadas el 30 de abril de 1873, que dan a conocer la plantilla de empleados de la Caja de Ahorros del banco.

Hasta llegar a la actual sede social, situada en la plaza de San Nicolás, el Banco de Bilbao estuvo ubicado en distintos edificios, reproducidos en un conjunto de maquetas presentes en este apartado. Inicia su camino, con



# Banco de Bilbaoren jatorria

XIX. mendearen bigarren erdia aldaketa handiko garaia izan zen Bizkaiko ekonomiarentzat, eraldatze-prozesu betean baitzegoen, 1856an Jaulkipen Bankuen eta Kreditu Sozietateen Legea argitaratu zenez geroztik, besteak beste. Lege hori funtsezkoa izan zen finantza-sistema modernizatzeko bidean.

Urtebete geroago, 1857an, ofizialki fundatu zen Banco de Bilbao, Bizkaian sortutako lehen bankua, eskualdearen bilakaera ekonomikorako funtsezko pieza izango zena. Hamazazpi mila biztanle pasatxo zituen orduan hiriak, baina, une hartatik aurrera, hiri-hedapenerako plan bat jarri zen abian, Bilboren sustapen soziokulturala ekarriko zuena, hemen ikusgai ditugun Manuel Losadaren obrek erakusten duten bezala (1. irud.).

Lehen Akziodunen Batzar Orokorra 1857ko ekainaren 3an egin zen. Erakusketan ikusgai daude bankuaren sortze-eskritura, abuztuaren 24koa, banku-eragiketen hasiera markatu zuen mugarria, baita Banco de Bilbaoren lehen inskripzio-agiriaren pasartea ere (2. irud.). Handik gutxira bere garaiko finantza-erakunde aitzindari gisa nabarmendu zen erakundea.

Sorreratik beretik, Banco de Bilbaok aurrezki-kutxa bat sortzea proposatu zuen, guztiz ekimen ez-ohikoa garai hartan. Aurrezki-kutxa 1860-1861 artean ireki zen eta Espainian banku batek sortutako era horretako lehen erakundea izan zen. Haren helburu nagusia tokiko inbertitzaile txikiak eta ertainak finantza-tresnez hornitzea zen. Haien bidez, kartilak probintzia osora zabaldu eta Euskadik etorkizunean izango zuen sukurtsal-sarearen oinarriak ezarri ziren. Bitxikeria gisa, erakusketan hainbat nomina bildu dira, 1873ko apirilaren 30ekoak, bankuaren Aurrezki Kutxako langile-plantillaren berri ematen dutenak.

Banco de Bilbaoren egoitza soziala tokiz aldatuz joan da, egungora (San Nikolas plaza) iritsi arte. Erakusketaren atal honetan, maketetan erreproduzituta ageri dira egoitza horiek. Bankuak Estufa kaleko (gaur egun, Epaltzaren Alargunaren kalea da) zazpigarren zenbakian, lokal xume

carácter provisional, el 24 de agosto de 1857 en unos modestos locales del número siete de la bilbaína calle de la Estufa, hoy Viuda de Epalza. Conforme las operaciones van ganando en intensidad, se busca ampliar la sede, y en los primeros días de enero de 1858 las oficinas se trasladan al número veintidós de la calle de la Ribera.

El rápido incremento de las actividades exige contar con un edificio de mayor tamaño y acorde también con el reconocimiento que la corporación y la ciudad están alcanzando; con este fin, en 1861 el Banco de Bilbao compra la Posada de San Nicolás. El encargo del nuevo proyecto al arquitecto francés Eugène H. Lavalle evidencia la aspiración del Banco de Bilbao de estar a la vanguardia de las tendencias urbanísticas de la época, algo muy en consonancia con su creciente prestigio.

Tras la demolición de la antigua posada y la obtención del permiso de obras correspondiente, el 30 de marzo de 1865 se coloca la primera piedra. El proceso resulta laborioso y hay que solventar ciertas dificultades técnicas, pero en algo menos de tres años, el 7 de enero de 1868, se inaugura la nueva sede del banco. El edificio se eleva ocupando una sección que abarca toda la fachada principal, quedando todavía varias casas en la parte trasera del inmueble. Años después se llevará a cabo una ampliación, adquiriéndose algunas de esas viviendas adyacentes, y se abrirá una calle, denominada calle del Banco de Bilbao, cuya placa puede contemplarse en la muestra (fig. 3).

Este hecho marca un momento clave en la historia del banco y el comienzo de una etapa de prosperidad para la institución, que ahora cuenta con una sede moderna, a la altura de su reputación. Además, su construcción es reflejo del florecimiento económico y social de Bilbao, y contribuye en gran medida al creciente atractivo de la ciudad como centro financiero y cultural.



batean, ekin zion bere bideari, 1857ko abuztuaren 24an. Banku-eragiketen garrantzia handitu heinean, egoitza handiago bat bilatzea erabaki zen, eta 1858ko urtarrilaren lehen egunetan, Erribera kaleko 22. zenbakira aldatu ziren bulegoak.

Jardueren hazkunde azkarrak eraikin handiago bat izatea eskatzen zuen, korporazioa eta hiria irabazten ari ziren ospearekin bat etorriko zena. Hori dela eta, 1861ean, Banco de Bilbaok San Nikolas ostatua erosi zuen. Proiektu berria Eugène H. Lavalle arkitekto frantsesari enkargatu izanak agerian uzten zuen, Banco de Bilbaoren aldetik, garaiko hirigintza-joeren abangoardian egoteko nahi bat, erakundearen ospe gero eta handiagorekin guztiz bat zetorrena, inondik ere.

Ostatu izandako eraikina eraitsi eta obra-baimena lortu ondoren, lehen harria jarri zen, 1865eko martxoaren 30ean. Eraikuntza-prozesua nekeza izan zen, eta zenbait zailtasun tekniko gainditu behar izan ziren, baina lanak hasi eta hiru urte eskasera, 1868ko urtarrilaren 7an, bankuaren egoitza berria inauguratu zen. Eraikina fatxada nagusi osoa hartzen zuen sekzio bat okupatuz altxatu zen; baina atzealdean etxebizitza batzuk geratu ziren oraindik. Urte batzuk geroago, egoitza handitzeko lanak egin ziren: orduan etxebizitza horietako batzuk erosi ziren, eta kale bat ireki, Banco de Bilbao kalea, hain zuzen. Erakusketan ikusgai dago kale-izenaren plaka ere (3. irud).

Une hori garrantzi handikoa izan zen bankuaren historian, oparotasun-aldi baten hasiera markatu zuen neurrian. Bere ospearen mailan zegoen egoitza moderno bat zeukan orain Banco de Bilbaok. Eraikina, gainera, Bilboko loraldi ekonomiko eta sozialaren adierazgarri zen, eta eraikuntzak berak hiria finantza- eta kultura-zentro gisa irabazten ari zen erakargarritasun gero eta handiagoa areagotzen lagundu zuen.

1



2




3




1. irud. / fig. 1
Manuel Losada, *Damak San Nikolas elizaren ondoan*, d.g. Olioa mihisean, 290 × 210 cm. BBVA Bilduma / Manuel Losada, *Damas junto a la iglesia de San Nicolás*, s.f. Óleo sobre lienzo, 290 × 210 cm. Colección BBVA

2. irud. / fig. 2
Banco de Bilbaoren lehen inskripzio-agiria, 1858ko otsailaren 1a. Tinta paperean, 32 × 30,5 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Primer extracto de inscripción del Banco de Bilbao, 1 de febrero de 1858. Tinta sobre papel, 32 × 30,5 cm. Archivo Histórico BBVA

3. irud. / fig. 3
Banco de Bilbao kalearen plaka, 1950-1970 ing. Metala, 30 × 40 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Placa de la calle Banco de Bilbao, h. 1950-1970. Metal, 30 × 40 cm. Archivo Histórico BBVA

# El Banco de Bilbao como banco de emisión de moneda

El Banco de Bilbao nace como una empresa corporativa formada por comerciantes y acaudalados bilbaínos. Su fundación está estrechamente vinculada a la Ley de Bancos de Emisión y de Sociedades de Crédito, promulgada el 26 de enero de 1856, que permite la creación de bancos locales que, con monopolio exclusivo, tienen la capacidad de emitir billetes al portador de uso restringido en la provincia.

La entidad desempeña un papel fundamental como emisora de billetes desde 1857 hasta 1874, año en el que se firma el decreto de concesión del monopolio de emisión al Banco de España. Es interesante destacar que en la colección del Archivo Histórico de BBVA se conservan diecisiete bloques de billetes que nunca fueron puestos en circulación, razón por la cual todavía están unidos a la matriz y carecen de fecha, como vemos en el ejemplar expuesto, pieza única y muy valiosa en términos numismáticos (fig. 4).

Para poder respaldar la provisión de dinero en efectivo, es importante asegurar la protección y custodia de los bienes. En este contexto, la producción de arcas de hierro implica un avance significativo, ya que su sólida construcción y sus intrincados mecanismos brindaban una mayor tranquilidad a quienes depositaban su riqueza en ellas. El arca de hierro presente en la muestra, obsequio del Consulado de Bilbao al Banco de Bilbao en su fundación, fue realizada entre los siglos XVII y XVIII para transportar metales preciosos desde las Indias.

La sección se complementa con un conjunto de máquinas de escribir de finales del siglo XIX, como el modelo «Blick», conocido por su ligereza y portabilidad, la «Columbia Bar-Lock» (fig. 5), caracterizada por la gran belleza de su decoración *art nouveau* o la «Yost», cuyo innovador sistema aportaba una muy precisa alineación de las letras en la escritura.



# Banco de Bilbao, dirua jaulkitzeko banku gisa

Banco de Bilbao merkatariz eta dirudunez osatutako enpresa korporatibo gisa sortu zen. Haren sorrerak lotura estua du Jaulkipen Bankuen eta Kreditu Sozietateen Legearekin. Lege horrek —1856ko urtarrilaren 26an aldarrikatua— tokian tokiko bankuak sortzeko aukera ematen zuen, eta bankuok eramaile-billeteak jaulkitzeko ahalmena zuten, monopolio esklusiboa, probintziaren barruan betiere.

Erakundeak funtsezko papera jokatu zuen billete-jaulkitzaile gisa 1857-1874 bitartean. Azken urte horretan, ordea, jaulkipenen monopolioa Espainiako Bankuari emateko dekretua sinatu zen. Interesgarria da aipatzea BBVA Artxibo Historikoaren bilduman inoiz zirkulazioan jarri gabeko hamazazpi billete-bloke gordetzen direla. Hori dela eta, billeteok ondoari lotuta daude oraindik, eta ez dute datarik, erakusgai jarritako alean (pieza paregabea eta oso baliotsua numismatikaren munduan) ikus daitekeen bezala (4. irud.).

Eskudiru-hornidura ziurtatzearren, garrantzitsua da ondasunen babesa eta zaintza bermatzea. Horiek horrela, burdinazko kutxen ekoizpenak aurrerapauso nabarmena ekarri zuen, haien eraketa gotorrak eta mekanismo bihurriek lasaitasun handiagoa ematen baitzieten aberastasunak haietan gordetzen zituztenei. Erakusketan ikusgai dagoen burdinazko kutxa hau (Bilboko Kontsulatuak Banco de Bilbaori egindako oparia, bankuaren sorreraren kariaz), XVII- XVIII. mendeen bueltan egin zen, Indietatik metal preziatuak garraiatzeko.

Atal honetan, osagarri gisa, XIX. mendearen amaierako hainbat idazmakina daude ikusgai: «Blick» modeloa, bere arintasunagatik eta eramangarritasunagatik ezaguna; «Columbia Bar-Lock» izenekoa (5. irud.), *art nouveau* estiloko dekorazio ederra izateagatik nabarmentzen zena; edota «Yost» delakoa, letrak lerro-lerro idazten zituen sistema berritzaile bat zekarrena.

4




5




4. irud. / fig. 4
100 erreal kuartoko jatorrizko billeteak, Banco de Bilbaok jaulkiak, 1874. Paper inprimatua, 14 × 33 × 6 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Billetes originales de 100 reales de vellón emitidos por el Banco de Bilbao, 1874. Papel impreso, 14 × 33 × 6 cm. Archivo Histórico BBVA

5. irud. / fig. 5
Charles Spiro, «Columbia Bar-Lock» idazmakina, 72860 serie-zenbakiduna, XIX. mendearen amaiera. Metala, 36 × 38 × 21 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Charles Spiro, Máquina de escribir «Columbia Bar-Lock», nº de serie 72860, finales del siglo XIX. Metal, 36 × 38 × 21 cm. Archivo Histórico BBVA

# La industrialización

En las últimas décadas del siglo XIX, Bilbao experimenta un proceso de industrialización que tendrá gran repercusión tanto en el aspecto económico como en el social y urbanístico, posicionándose a la cabeza en la modernización del país.

**La ría y el puerto**

El puerto de Bilbao ha sido, y sigue siendo, un enclave fundamental en el comercio de exportación e importación de productos y materias primas. Situado en un lugar privilegiado, donde la ría comienza a ser navegable, en el siglo XIX se convierte en centro de la actividad comercial, industrial y económica de la ciudad.

A su vez, juega un papel primordial como eje del desarrollo social bilbaíno, como bien pone de manifiesto el pastel de Manuel Losada *Festejos en la ría de Bilbao* (fig. 6). Cabe destacar que, hasta finales del siglo XIX, uno de los lugares más emblemáticos es la Plaza Vieja, con el imponente edificio de la Casa Consistorial y el Consulado adyacente a la iglesia de San Antón, construcciones que recoge la vista fotográfica incluida en este apartado.

Otro paraje fundamental en la ciudad es el Arenal, un espacio abierto en la orilla derecha de la ría que se utiliza como puerto y lugar de encuentro social y comercial. En el siglo XIX experimenta importantes obras de infraestructura encaminadas a obtener mayor eficiencia y comodidad en las operaciones portuarias. Asimismo se realizan mejoras en las vías de comunicación, que contribuyen a agilizar el transporte y la conexión con otras áreas de la villa, y a la ejecución de diversas transacciones comerciales, tanto locales como internacionales.

Es conveniente señalar el destacado papel de la ría de Bilbao, símbolo de prosperidad para Vizcaya al estar estrechamente vinculada al desarrollo industrial de la región. En la exposición encontramos una pieza de gran valor



# Industrializazioa

XIX. mendearen azken hamarkadetan, Bilbok garrantzi handiko industrializazio-prozesu bat bizi izan zuen, eragin handikoa ekonomian, gizartean eta hirigintzan, eta estatuaren modernizazioaren buru jarri zuena.

**Itsasadarra eta portua**

Bilboko portua funtsezko gunea izan da, eta da oraindik ere, salgai eta lehengaien esportazio- eta inportazio-merkataritzan. Kokaleku pribilegiatu batean baitago, itsasadarra nabigagarria izaten hasten den puntuan, hiriko merkataritza-, industria- eta ekonomia-jardueraren erdigune bihurtu zen XIX. mendean.

Era berean, berebiziko garrantzia izan zuen Bilboko bizitza sozialaren ardatz gisa ere, Manuel Losadaren *Festak Bilboko itsasadarrean* margolanak agerian uzten duen bezala (6. irud.). Hiriko leku enblematikoenetako bat, XIX. mendearen amaiera arte behintzat, Plaza Zaharra izan zen, non udaletxearen eta kontsulatuaren eraikin ikusgarria nabarmentzen baitzen, San Anton elizari itsatsia. Argazki-ikuspegi honetan, aipatu eraikin biak ageri dira.

Hiriko beste alderdi ezinbesteko bat Areatza zen, itsasadarraren eskuinaldean irekitako gune zabala, portu gisa eta topaleku sozial eta komertzial gisa erabilia. XIX. mendean, azpiegitura-lan garrantzitsuak egin ziren bertan, portu-eragiketen eraginkortasuna eta erosotasuna handitzeko. Halaber, komunikabideak hobetzeko lanak egin ziren, hiriko beste alderdi batzuekiko garraioa eta lotura arintzearren, eta merkataritza-transakzioak, tokikoak nahiz nazioartekoak, gauzatzen laguntzearren.

Azpimarratu beharra dago, baita ere, Bilboko itsasadarraren garrantzi itzela, oparotasunaren sinbolo baita Bizkaiarentzat, eskualdeko industria-garapenarekin estu-estu lotuta dagoen neurrian. Erakusketan bada balio dokumental handiko pieza bat: «memoria» bat, 1821eko apirilaren 17koa,

documental: una «memoria», fechada el 17 de abril de 1821, que aborda el estado de la ría y propone posibles intervenciones para su mejora. Su análisis detallado y los planos adjuntos proporcionan una visión completa y fundamentada sobre el potencial de la ría como recurso económico y elemento clave en la historia de Bilbao (figs. 7 y 8).

Junto a esta visión de carácter sobre todo pragmático, encontramos también una vertiente propiamente estética: la ría es fuente de inspiración para muchos artistas, como Pablo Gonzalvo, cuya obra representa el entorno de la ría de Bilbao en 1857 y se convierte en testimonio de la transformación paisajística llevada a cabo en años posteriores, lo que supondrá un importante cambio en la geografía de la provincia (fig. 9).

**Ley de Ferrocarriles, 3 de junio de 1855**

El ferrocarril fue otro de los factores clave en el despliegue económico y social de Vizcaya, contribuyendo a la modernización y enriquecimiento de la región. Para ello fue fundamental la publicación de la Ley de Ferrocarriles del 3 de junio de 1855, que regulaba y fomentaba el desarrollo de la red ferroviaria en España con el objetivo de mejorar las comunicaciones y facilitar el transporte de mercancías y pasajeros en todo el país.

A lo largo del siglo XIX se producen varios intentos de construir una línea férrea que conecte Bilbao con la meseta española. El 13 de marzo de 1856, en un proceso paralelo al que da origen al Banco de Bilbao, algunas asociaciones bilbaínas forman la denominada «Comisión del Ferrocarril Vizcaíno», que lucha para conseguir que el tren que une Madrid con Irún pase por Bilbao, aunque finalmente el trazado se fijará por Vitoria. Esta red será construida y explotada por la Compañía de los Caminos de Hierro del Norte de España, más conocida como la Compañía del Norte.

Ante la marginación que esto supone para Vizcaya, las fuerzas políticas, sociales y económicas de la región se movilizan para crear una estructura ferroviaria que permita unir Bilbao con la línea del Norte. Y surge una nueva oportunidad con la construcción del ferrocarril de Tudela a Bilbao, cuyas obras son financiadas principalmente por el recién fundado Banco de Bilbao.

La Compañía del Ferrocarril de Tudela a Bilbao es constituida el 13 de enero de 1858; su proyecto se enfrenta a numerosos desafíos técnicos debido al terreno montañoso que debe atravesar, y representa un importante logro de ingeniería en su época. Uno de los tramos más complejos es el Viaducto de Orduña, en Vizcaya, inaugurado en 1862, acontecimiento que recoge un grabado de la época del que esta exposición incluye una copia. Finalmente, el 1 de marzo de 1863, el ferrocarril llega a Bilbao, específicamente a Abando; la fotografía reproducida en esta sección revela el aspecto de la estación en 1874.



itsasadarraren egoera aztergai duena eta hura hobetzeko esku-hartzeak proposatzen dituena. Haren azterketa xehatuak eta erantsitako planoek ikuspegi oso bat ematen dute, ondo funtsatua, itsasadarrak baliabide ekonomiko eta Bilboko historiaren elementu nagusi gisa izandako ahalmenaz (7. eta 8. irud.).

Baina itsasadarrari buruzko ikuspegi batez ere pragmatiko horretaz gain, bada alderdi estetiko bat ere: itsasadarra inspirazio-iturri izan zen artista askorentzat, hala nola Pablo Gonzalvorentzat. Artistak Bilboko itsasadarraren ingurua irudikatu zuen 1857an, eta ondorengo paisaia-eraldaketaren lekuko bihurtu zen hala. Izan ere, probintziaren geografiak itxuraldaketa handia izan zuen hurrengo urteetan (9. irud.).

**Trenbideen Legea, 1855eko ekainaren 3koa**

Trenbidea izan zen Bizkaiaren garapen ekonomiko eta sozialaren beste eragile garrantzitsuetako bat, lurraldea modernizatzen eta aberasten lagundu zuena. Zeregin horretan, funtsezkoa izan zen 1855eko ekainaren 3ko Trenbide Legea argitaratzea. Lege horrek Espainiako trenbide-sarearen garapena arautzen eta sustatzen zuen, komunikabideak hobetzea eta herrialde osoko merkantzien eta bidaiarien garraioa erraztea helburu.

XIX. mendean, hainbat ahalegin egin ziren Bilbo eta Espainiako meseta lotuko zituen trenbidea eraikitzeko. 1856ko martxoaren 13an, Banco de Bilbaoren sorreraren prozesu paralelo batean, Bilboko zenbait elkartek «Bizkaiko Trenbidearen Batzordea» sortu zuten, Madril eta Irun lotu behar zituen trena Bilbotik igaro zedin, baina, ahaleginak ahalegin, Gasteiztik barrena igaroarazi zuten azkenean ibilbidea. Compañía de los Caminos de Hierro del Norte de España izeneko konpainiak, Euskal Herrian Norteko Konpainia izenez ere ezagunak, eraiki eta ustiatu zuen trenbide-sare berria.

Erabaki horrek Bizkaiari zekarkion bazterketari aurre egin nahiz, probintziako indar politiko, sozial eta ekonomikoak Bilbo eta Norteko trenbidea lotuko zituen trenbide-egitura baten alde mobilizatu ziren. Baina beste aukera bat sortu zen orduan, Tutera-Bilbo trenbidearen eraikuntzarekin. Eta Banco de Bilbao sortu berria izan zen trenbide hura eraikitzeko lanen finantzatzaile nagusia.

Tutera-Bilbo Trenbidearen Konpainia 1858ko urtarrilaren 13an eratu zen. Proiektuak erronka tekniko asko gainditu behar izan zituen, ibilbideak zeharkatzen zuen eremu menditsua zela eta, eta, horregatik, ingeniaritza-lorpen handia izan zen bere garaian. Ibilbide-zati konplexuenetako bat Urduñako biaduktua (Bizkaia) izan zen, 1862an inauguratua. Orduko grabatu baten kopia bat ikusgai dugu erakusketa honetan. Azkenik, 1863ko martxoaren 1ean, trenbidea Bilbora iritsi zen, Abandora zehazki; atal honetan erreproduzituta dagoen argazkian, geltokiak 1874an zuen itxura ikusten da.

6. irud. / fig. 6
Manuel Losada, *Festak Bilboko itsasadarrean*, d.g. Pastela paperean, 46 × 63 cm. BBVA Bilduma / Manuel Losada, *Festejos en la ría de Bilbao*, s.f. Pastel sobre papel, 46 × 63 cm. Colección BBVA

7. irud. / fig. 7
Bilboko itsasadarraren planoa, 1821eko apirilaren 17a. Tinta paperean, 54 × 125 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Plano de la ría de Bilbao, 17 de abril de 1821. Tinta sobre papel, 54 × 125 cm. Archivo Histórico BBVA

8. irud. / fig. 8
Tomás Muñoz, Bilboko itsasadarraren egoerari buruzko *Memoria*, 1821eko apirilaren 17a. Tinta paperean, 38,5 × 48,6 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Tomás Muñoz, *Memoria* sobre el estado de la ría de Bilbao, 17 de abril de 1821. Tinta sobre papel, 38,5 × 48,6 cm. Archivo Histórico BBVA

6



7, 8





MEMORIA
en que se trata
de libertar el vecindario de esta N. Villa de Bilbao de los graves males y peligros inminentes que le causan las avenidas y el mal estado de su Ria

Lamentablemente los gastos de instalación superan con creces el presupuesto inicial y no se obtiene la rentabilidad esperada. Esta situación se agrava con la crisis general del transporte ferroviario de 1865 y en noviembre de ese año la empresa se verá obligada a suspender pagos. En los años siguientes persistirán las dificultades y el 28 de marzo de 1878 se firma un acuerdo por el cual la Compañía del Norte adquiere la propiedad de esta estructura vial, que comenzará a explotar pocos meses después.

La exposición recoge documentos interesantes sobre ambas compañías, como la Correspondencia entre los adjudicatarios de la construcción del Ferrocarril Tudela-Bilbao y el Banco de Bilbao, datada el 28 de diciembre de 1860 (fig. 10), la Escritura de Venta de Caminos de Hierro del Norte de 1899 o una circular, fechada en Valladolid el 21 de octubre de 1963, donde aparecen las tarifas.

A pesar de todos los problemas citados, la ejecución del ramal entre Bilbao y Miranda es un paso significativo para la región, y muchos empresarios y comerciantes ven la necesidad de establecer una red de transportes eficaz que permita el desarrollo de la naciente industria vasca. Gracias a esto, en la década de los noventa se termina la línea férrea del interior y se construye el Ferrocarril de la Robla, que conecta las cuencas vizcaína y leonesa, desempeñando un papel primordial en el suministro de carbón a las empresas siderúrgicas de Vizcaya. En este apartado se puede ver la escritura de registro, fechada el 13 de junio de 1891, que contiene el plano del trazado desde La Robla hasta Balmaseda, documento de gran valor histórico por ser testimonio de la precisión con la que se planificó esta importante infraestructura ferroviaria (fig. 11).

**Minas y navieras**

A lo largo de la historia, Vizcaya había destacado por ser una región rica en recursos naturales; en el siglo XIX se inicia la extracción en masa del carbón mineral, que se convierte en la fuente principal de energía. Durante el periodo comprendido entre 1868 y 1873, diferentes compañías extranjeras se asientan en las cercanías de la ría para llevar a cabo la extracción de hierro y, con ayuda de los ferrocarriles mineros, transportarlo posteriormente a los barcos; nace así un nuevo sector empresarial, los «minero-navieros». Uno de los cotos mineros más famosos –cuyo plano de demarcación podemos encontrar en la exposición (fig. 12)– es el de la Compañía que José Mac-Lennan, ingeniero de minas y exitoso hombre de negocios, pone en marcha en 1868.

En paralelo a este desarrollo, al terminar las guerras napoleónicas surge en Olabeaga un importante movimiento de restauración industrial y se calcula que entre 1841 y 1874 se botaron unos mil buques mayores en la ría de Bilbao. Estos astilleros inspiran a muchos de los artistas locales del momento, que



Zoritxarrez, instalazio-gastuek nabarmen gainditu zuten hasierako aurrekontua, eta ez zen esperotako errentagarritasuna lortzerik izan. Egoera larriagotu egin zen 1865eko tren garraioaren krisi orokorrarekin, eta urte horretako azaroan enpresak ordainketa-etendura deklaratu zuen. Hurrengo urteetan, zailtasunak bere horretan mantendu ziren, eta 1878ko martxoaren 28an akordio bat sinatu zen, zeinaren bidez Norteko Konpainiak bide-egitura horren jabetza eskuratu baitzuen. Handik hilabete gutxira hasi zen konpainia trenbidea ustiatzen.

Erakusketan, bi konpainiei buruzko dokumentu interesgarriak bildu ditugu, hala nola: Tutera-Bilbo trenbidea eraikitzeko lanen esleipendunen eta Banco de Bilbaoren arteko korrespondentzia, 1860ko abenduaren 28koa (10. irud.); Norteko Konpainiaren salmenta-eskritura (1899); edo tarifak agertzen diren zirkular bat, Valladoliden 1963ko urriaren 21ean datatua.

Arazo horiek guztiak gorabehera, Bilbo eta Miranda arteko adarra gauzatzea aurrerapauso garrantzitsua izan zen eskualde osorako, eta enpresaburu eta merkatari askok beharrezkotzat jo zuten garraio-sare eraginkor bat zabaltzea, sortzen ari zen euskal industriaren garapena laguntzeko. Horri esker, laurogeita hamarreko hamarkadan, barrualdeko burdinbidea amaitu eta La Roblako Trenbidea eraiki zen. Bizkaiko eta Leongo arroak lotzen zituen trenbideak, Bizkaiko enpresa siderurgikoak ikatzez hornitzeko funtsezko zeregina betez. Atal honetan, La Robla-Balmaseda trazaduraren planoa jasotzen duen erregistro-eskritura ikus daiteke, 1891ko ekainaren 13koa. Balio historiko handiko dokumentua da, trenbide-azpiegitura garrantzitsu hori nolako zehaztasunez planifikatu zen erakusten duelako (11. irud.).

**Meatzeak eta ontzi-enpresak**

Historian zehar, Bizkaia baliabide naturaletan aberatsa izateagatik nabarmendu da; XIX. mendean hasi zen ikatz minerala modu masiboan erauzten eta energia-iturri nagusi gisa erabiltzen. 1868-1873 bitartean, atzerriko zenbait konpainia itsasadarretik gertu finkatu ziren, burdina erauzteko eta, meatze-trenbideen laguntzaz, ontzietara eramateko. Enpresa-sektore berri bat sortu zen hala: meatzeak eta ontzi-enpresak batzen zituena. Meatze-barruti ezagunenetako bat –erakusketan ikus daiteke haren demarkazio-planoa (12. irud.)– José Mac Lennan meatze-ingeniariak eta negozio-gizon arrakastatsuak 1868an martxan jarri zuen Konpainiarena izan zen.

Garapen horrekin batera, gerra napoleonikoak amaitzean industria zaharberritzeko mugimendu garrantzitsu bat sortu zen Olabeagan, eta kalkulatzen da 1841 eta 1874 artean mila ontzi inguru uretaratu zirela Bilboko itsasadarrean. Hori gutxi ez eta, ontziola horiek inspirazio-iturri izan ziren garaiko artistentzat; izan ere, Euskal Herriko pertsonaia eta ohitura

9. irud. / fig. 9
Pablo Gonzalvo, *Nerbioi ibaiaren ikuspegia*, 1857. Olioa mihisean, 74,5 × 103 cm. BBVA Bilduma / Pablo Gonzalvo, *Vista de la ría del Nervión*, 1857. Óleo sobre lienzo, 74,5 × 103 cm. Colección BBVA



9

buscaban representar los tipos y costumbres populares del pueblo vasco. Es el caso de Aurelio Arteta, que realiza estudios previos en los talleres de forja y remache de dicha localidad, presente en la muestra con un boceto para la figura de su mural *El astillero* (fig. 13).

**La siderurgia**

El gran cambio se produce cuando los empresarios comienzan a dedicarse a la transformación del hierro, con el consiguiente auge de la actividad siderúrgica. La extracción, transporte y elaboración de los recursos minerales –para lo que resulta esencial el apoyo financiero de los bancos– sientan las bases para la expansión industrial de Vizcaya y, por ende, de España.

El eminente papel que adquiere el puerto de Bilbao a lo largo del siglo XIX favorece la acumulación de capitales significativos y propicia el surgimiento de las primeras siderurgias modernas. En 1880 se funda la Fábrica de San Francisco de Mudela, y dos años después nacen las sociedades Metalurgia y Construcciones «La Vizcaya» y Altos Hornos y Fábricas de Hierro y Acero de Bilbao, núcleo de los futuros Altos Hornos de Vizcaya, que surgirán a principios del siglo XX, marcando un hito en el desarrollo industrial de la región.

La exposición reúne ejemplos de facturas, recibos, pagarés y acciones de estas compañías ya extintas, cuyas transacciones comerciales se realizaban a través del Banco de Bilbao o del Banco del Comercio. La importancia de estos documentos radica en el valor artístico de su membrete y en su condición de fuente histórica fundamental, ya que apenas se conservan fotografías de esas empresas (figs. 14 y 15).

Como complemento, encontramos el lienzo *Vista nocturna del Puerto de Bilbao. Altos hornos*, de José Echenagusía, donde el artista consigue captar la fuerza propia del ambiente industrial mediante el uso de una paleta oscura, la intensidad de la pincelada y el estudio lumínico, creando una obra de gran atractivo estético (fig. 16).



herrikoiak irudikatzea izan zuten helburu haietako askok. Hori da, adibidez, Aurelio Artetaren kasua: aurretiazko zirriborroak egin zituen herri horretako forja- eta errematxe-lantegietan. Erakusketa honetan, haren *Ontziola* horma-irudiaren zirriborro bat dugu ikusgai (13. irud.).

**Siderurgia**

Aldaketa handiena enpresariak burdina eraldatzen hastean gertatu zen, horrek siderurgiaren gorakada ekarri baitzuen berekin. Baliabide mineralen erauzketak, garraioak eta lanketak —ezinbesteko laguntza finantzarioarekin batera— Bizkaiaren —eta, ondorioz, Espainiaren— industria-hedapenaren oinarriak finkatu zituzten.

Bilboko portuak XIX. mendean zehar hartu zuen paper garrantzitsuak kapital handiak metatzen hastea eta lehen siderurgia modernoak sortzea ekarri zuen. 1880an, San Franciso de Mudela fabrika sortu zen, eta bi urte geroago Metalurgia eta Construcciones «La Vizcaya» eta Altos Hornos y Fábricas de Hierro y Acero de Bilbao sozietateak, XX. mendearen hasieran Bilboko Labe Garaiak (mugarri bat eskualdearen industria-garapenean) bilakatuko zenaren ernamuina.

Erakusketan ikusgai daude dagoeneko iraungita dauden konpainia horien fakturak, ordainagiriak, zor-agiriak eta akzioak. Izan ere, konpainia horien merkataritza-akordioak Banco de Bilbao edo Banco del Comercio bankuen bidez egiten ziren. Dokumentu horien garrantzia idazpuruaren balio artistikoan eta funtsezko iturri historikoak izatean datza, ia ez baita enpresa horien argazkirik iritsi gaur egun arte (14. eta 15. irud.).

Informazio osagarri gisa, José Echenagusíaren *Bilboko portuaren gaueko ikuspegia, Labe Garaiak* mihisea dugu. Artistak garaiko industria-giroaren indarra harrapatzea lortu zuen, paleta ilun baten, pintzelkadaren intentsitatearen eta argiaren azterketaren bidez, erakargarritasun estetiko handiko obra bat sortuz (16. irud.).

10, 11






12




13



10. irud. / fig. 10
Tutera-Bilbo trenbidearen eraikuntzalanen esleipendunek Banco de Bilbaori idatzitako gutuna, 1860ko abenduaren 28koa. Tinta paperean, 25,4 × 20 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Correspondencia de los adjudicatarios de la construcción del ferrocarril Tudela-Bilbao al Banco de Bilbao, 28 de diciembre de 1860. Tinta sobre papel, 25,4 × 20 cm. Archivo Histórico BBVA

11. irud. / fig. 11
La Roblako burdinbidearen erregistro-eskritura eta ibilbidearen planoa, 1891. Tinta paperean, 33 × 455 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Escritura de registro y plano del trazado del ferrocarril de la Robla, 1891. Tinta sobre papel, 33 × 455 cm. Archivo Histórico BBVA

12. irud. / fig. 12
José Mac-Lennan Konpainiaren Meatze Barrutiaren mugen planoa, 1917. Tinta paperean, 94 × 160 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Plano de demarcación del Coto Minero de la Compañía de José Mac-Lennan, 1917. Tinta sobre papel, 94 × 160 cm. Archivo Histórico BBVA

13. irud. / fig. 13
Aurelio Arteta, *Gorputz-enborra mailuarekin.«Ontziola» obrarako estudioa*, 1921-1922 ing. Ikatz-ziria kartoi mehe baten gainean kolatutako paperean, 99,2 × 74,1 cm. BBVA Bilduma / Aurelio Arteta, *Torso con martillo*. *Estudio para «El astillero»*, h. 1921-1922. Carboncillo sobre papel encolado a cartulina, 99,2 × 74,1 cm. Colección BBVA

14. irud. / fig. 14
20.795. zenbakidun faktura, Sociedad Anónima de Metalurgia y Construcciones, Bizkaia, Bilbo, 1897ko ekainaren 12a. Tinta paperean, 29,8 × 21,4 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Factura nº 20.795, Sociedad Anónima de Metalurgia y Construcciones, Vizcaya, Bilbao, 12 de junio de 1897. Tinta sobre papel, 29,8 × 21,4 cm. Archivo Histórico BBVA

15. irud. / fig. 15
223684. zenbakidun akzio-agiria, Bizkaiko Labe Garaiak, 1920. Tinta paperean, 19,4 × 39,7 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Acción Nº 223684, Altos Hornos de Vizcaya, 1920. Tinta sobre papel, 19,4 × 39,7 cm. Archivo Histórico BBVA

16. irud. / fig. 16
José Echenagusía, *Bilboko portuaren gaueko ikuspegia, Labe Garaiak*, d.g. Olioa mihisean, 50,8 × 86,5 cm. BBVA Bilduma / José Echenagusía, *Vista nocturna del Puerto de Bilbao, Altos Hornos*, s.f. Óleo sobre lienzo, 50,8 × 86,5 cm. Colección BBVA

15




14




16



# La Tercera Guerra Carlista: el Sitio de Bilbao

Este episodio, que tiene lugar en el contexto de la Tercera Guerra Carlista (1872-1876), es uno de los acontecimientos más relevantes de la historia de Bilbao en la segunda mitad del siglo XIX. La ciudad –posicionada a favor del liberalismo moderado– sufre el asedio de las tropas carlistas, que dura desde el 21 de febrero hasta el 2 de mayo de 1874. A pesar de los constantes bombardeos y el desabastecimiento, la villa consigue resistir, tal y como documentan las reproducciones fotográficas presentes en esta sección. Se trata de una selección de copias de las fotografías originales realizadas por Charles Monney pertenecientes a una serie de tres álbumes titulada «El Sitio de Bilbao», que constituyen un valioso documento histórico y muestran la dureza y la tragedia del conflicto (figs. 17 y 18).

Durante la contienda se protegen los inmuebles para impedir su deterioro y demolición. El pastel de Manuel Losada y la reproducción que lo acompaña reflejan el aspecto de la sede central del Banco de Bilbao, ubicada en el Palacio de San Nicolás. Es interesante observar ambas imágenes juntas, ya que la fotografía original fue seguramente el recurso iconográfico utilizado por el pintor, respetando con fidelidad todos los detalles, como los soldados, los sacos terreros o las ventanas cubiertas con pieles de vaca colocadas para evitar daños (figs. 19 y 20).

A pesar de la complicada situación, el Banco de Bilbao continúa con su actividad y se reorganiza para seguir realizando su trabajo. Deja de ser banco emisor y se centra principalmente en otorgar créditos, préstamos y anticipos a las instituciones del Señorío, al mismo tiempo que se convierte en cajero de los dirigentes liberales, funciones que evidencian su repercusión en la economía regional.

El acontecimiento positivo del levantamiento del Sitio va acompañado por una noticia adversa para el Banco de Bilbao: el gobierno aprueba un decreto que concede al Banco de España el privilegio exclusivo de emisión de moneda, hecho que marcará el inicio de una etapa nueva en la historia de la entidad financiera.



# Hirugarren Karlistaldia: Bilboko setioa

Hiribilduaren setioa, Hirugarren Karlistaldiaren garaian, Bilboko XIX. mendearen bigarren erdiko gertaera garrantzitsuenetako bat izan zen. Hiriak —liberalismo moderatuaren alde jarria— tropa karlisten setioa jasan zuen 1874ko otsailaren 21etik maiatzaren 2ra arte. Etengabeko bonbardaketak eta hornikuntzarik eza gorabehera, hiribilduak erasoari eustea lortu zuen, atal honetan dauden argazki-erreprodukzioek erakusten duten bezala: Charles Monneyk «El Sitio de Bilbao» izeneko hiru albumeko sail baterako egindako argazkiaren kopiak dira. Album horiek balio handiko dokumentu historikoa dira eta agerian uzten dute gatazkaren gordina (17. eta 18. irud.).

Gerrak iraun zuen bitartean, eraikinak babestu egin behar izan ziren, borroketan hondatzea eta eraistea eragozteko. Manuel Losadaren margolanak eta ondoko argazkiak ondo erakusten dute zer itxura zuen orduan San Nikolas jauregiak, Banco de Bilbaoren egoitza nagusia zenak. Interesgarria da bi irudiak parez pare ikustea. Badirudi margolariak argazkia baliatu zuela bere lana ontzeko, fideltasunez errespetatu baitzituen jatorrizko irudiaren xehetasun guztiak, hala nola soldaduak, lur-zakuak, leihoak eta leihoetan kalteak saihesteko eskegitako behi-larruak (19. eta 20. irud.).

Egoera zaila bizi arren, Banco de Bilbaok aurrera jarraitu zuen bere zereginekin, lana berrantolatuta. Banku jaulkitzaile izateari utzi, eta Jaurerriko erakundeei kredituak, maileguak eta aurrerakinak ematean jarri zuen lehentasuna; aldi berean, buruzagi liberalen kutxazain bihurtu zen. Horrek guztiak agerian uzten du zein eragin handia izan zuen eskualdeko ekonomian.

Setioa altxatzearen berri onarekin batera, albiste txar bat ere jaso zuen Bilboko Bankuak: gobernuak dekretu bat onartu zuen, Espainiako Bankuari dirua jaulkitzeko pribilegio esklusiboa ematen ziona. Horrek etapa berri baten hasiera markatu zuen finantza-erakundearen historian.

17



18




19



20



17. irud. / fig. 17
Abando. Bilboko setioa 1874an. Argazki-kopia modernoa. Jatorrizkoaren ustezko egilea: Charles Monney / Abando. El Sitio de Bilbao en 1874. Copia fotográfica moderna. Original atribuido a Charles Monney

18. irud. / fig. 18
Bilboren defendatzaileak Areatzako zubiaren ondoan. Bilboko setioa 1874an. Argazki-kopia modernoa. Jatorrizkoaren ustezko egilea: Charles Monney / Defensores de Bilbao junto al puente de El Arenal. El Sitio de Bilbao en 1874. Copia fotográfica moderna. Original atribuido a Charles Monney

19. irud. / fig. 19
Manuel Losada, *Setioa*, d.g. Pastela paperean, 98,7 × 69,3 cm. BBVA Bilduma / Manuel Losada, *El Sitio*, s.f. Pastel sobre papel, 98,7 × 69,3 cm. Colección BBVA

20. irud. / fig. 20
Banco de Bilbao gotortuta eta blindatuta. Bilboko setioa 1874an. Argazki-kopia modernoa. Jatorrizkoaren ustezko egilea: Charles Monney / El Banco de Bilbao fortificado y blindado. El Sitio de Bilbao en 1874. Copia fotográfica moderna. Original atribuido a Charles Monney

# Fundación del Banco del Comercio

En la última década del siglo XIX se hace evidente que las exigencias financieras de Bilbao superan la capacidad de un único banco. Para satisfacer la creciente demanda, un grupo de destacados empresarios mineros, navieros y comerciantes deciden crear una sociedad, y el 20 de mayo de 1891, como consta en la escritura de constitución (fig. 21), se funda el Banco del Comercio, que rápidamente obtiene un lugar preponderante en las preferencias de los ciudadanos. Su asentamiento y éxito están basados en una combinación de experiencia empresarial, sólida gestión financiera y un enfoque centrado en las necesidades de los clientes; prueba de ello es la memoria del 25 de agosto de 1891, que recoge su primer balance.

La entidad se instalará definitivamente el 26 de octubre de 1891 en el número tres de la calle de la Estación, actualmente conocida como calle Navarra; sus oficinas ocupan la planta baja y todo el piso principal del edificio, brindando a sus clientes un espacio amplio y moderno donde realizar sus operaciones. Dentro del conjunto de máquinas de escribir que conserva el Archivo Histórico de BBVA, podemos encontrar una selección de piezas de la época en la que se funda el banco, entre las que destacan los modelos «Lambert» o «Mignon» (figs. 22 y 23).

El Banco del Comercio representa un hito importante en la historia económica de Bilbao. En esta sección se reproduce una imagen que muestra a su primer Consejo de Administración, integrado por prominentes líderes empresariales, entre los que sobresalen nombres como Fernando de Carranza y Arroyo, Manuel Castellanos, Benigno de Chávarri y Salazar (Marqués de Chávarri), Mariano Hernández Luengas, León de Longa, Santos López de Letona y Apoita, Francisco Martínez Rodas, Ricardo de Nárdiz, Ramón de la Sota y Llano, Domingo de Toledo y Arnedo, Juan Tomás de Ugarte, Santiago Varona y José Luis de Villabaso y Gorrita. Ellos, con su experiencia y visión clara, establecieron unas bases sólidas sobre las que evolucionar. Con el tiempo, su continuo crecimiento le permitió convertirse en una corporación financiera de renombre, generando un impacto significativo en la economía vizcaína y contribuyendo al desarrollo y prosperidad de la región.



# Banco del Comercioren fundazioa

XIX. mendeko azken hamarkadan argi geratu zen Bilboren finantza-eskakizunek banku bakar baten ahalmena gainditzen zutela. Eskaera gero eta handiagoari erantzuteko, meatzaritzaren eta ontzigintzaren alorreko enpresaburu eta merkatari talde batek sozietate bat eratzea erabaki zuten, eta 1891ko maiatzaren 20an, eraketa-eskrituran ageri den bezala (21. irud.), Banco del Comercio sortu zen. Banku berriak berehala hartu zuen herritarren artean leku nagusi bat. Enpresaren arrakastak hiru zutabe hauek izan zituen: enpresa-esperientzia, finantza-kudeaketa sendoa eta bezeroen beharretara zuzendutako ikuspegia. Horren erakusgarri da 1891ko abuztuaren 25eko memoria, bankuaren lehen balantzea jasotzen duena.

Erakundeak, azkenean, Geltoki kaleko hirugarren zenbakian (gaur egun, Nafarroa kalea) hartu zuen egoitza, 1891ko urriaren 26an. Bulegoek etxabea eta eraikinaren solairu nagusi osoa hartzen zuten, eragiketak egiteko espazio zabal eta moderno bat eskainiz bezeroei. BBVAren Artxibo Historikoak gordetzen dituen idazmakinen artean, Banco del Comercio sortu zen garaiko hainbat pieza aurki ditzakegu, hala nola, beste batzuen artean, «Lambert» edo «Mignon» modeloak (22. y 23. irud.).

Banco del Comercio mugarri garrantzitsua da Bilboko historia ekonomikoan. Atal honetan, bankuaren lehen Administrazio kontseilua erakusten duen irudi bat agertzen da. Kontseilua sona handiko enpresariz osatua zegoen: Fernando de Carranza y Arroyo, Manuel Castellanos, Benigno de Chávarri y Salazar (Chavarriko markesa), Mariano Hernández Luengas, León de Longa, Santos López de Letona y Apoita, Francisco Martínez Rodas, Ricardo de Nárdiz, Ramón de la Sota y Llano, Domingo de Toledo y Arnedo, Juan Tomás de Ugarte, Santiago Varona eta José Luis de Villabaso y Gorrita. Gizon haiek, beren esperientzia eta ikuspegi argiarekin, bankuaren garapenerako oinarri sendoak ezarri zituzten. Denborarekin, eta bere etengabeko hazkundeari esker, bankua izen handiko finantza-korporazio bat bihurtu zen, Bizkaiko ekonomian eragin nabarmena izan zuena eta eskualdearen garapenari eta oparotasunari bultzada handia eman ziona.

21


Escritura de constitución
de la
Compañía anónima de crédito
denominada
"Banco del Comercio"
otorgada
ante
D. Felix de Uribarri
Notario público con residencia en Bilbao
el
20 de Mayo 1891

22




23




21. irud. / fig. 21
Banco del Comercioren eraketa-eskritura, 1891ko maiatzaren 20a. Tinta paperean, 23 × 45 × 3 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Escritura de Constitución del Banco del Comercio, 20 de mayo de 1891. Tinta sobre papel, 23 × 45 × 3 cm. Archivo Histórico BBVA

22. irud. / fig. 22
Frank Lambert, «Lambert» idazmakina, 1 modeloa, 601 serie-zenbakiduna, 1902. Metala, 17 × 28 × 17 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Frank Lambert, Máquina de escribir «Lambert», modelo 1, nº de serie 601, 1902. Metal, 17 × 28 × 17 cm. Archivo Histórico BBVA

23. irud. / fig. 23
Dr. Friedrich von Hefner-Alteneck, «Mignon» idazmakina, 2 modeloa, 1905. Zura eta metala, 40 × 32 × 20 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Dr. Friedrich von Hefner-Alteneck, Máquina de escribir «Mignon», modelo 2, 1905. Madera y metal, 40 × 32 × 20 cm. Archivo Histórico BBVA

# Fundación del Banco de Vizcaya y fusión del Banco del Comercio y el Banco de Bilbao

La efervescencia financiera que caracteriza el cambio de siglo se traduce en Bilbao en un florecimiento sin precedentes del sector bancario. El año 1901 marca un punto de inflexión, con una serie de reajustes que contribuyen a aclarar el panorama económico de la ciudad, que se verá profundamente afectada por estas transformaciones: se funda el Banco de Vizcaya y se fusionan el Banco del Comercio y el Banco de Bilbao (figs. 24 y 25).

El 26 de marzo de 1901 se crea el prestigioso Banco de Vizcaya, acontecimiento trascendental para el crecimiento de Bilbao. Esta institución se impone como un referente en el sector, demostrando desde sus comienzos una vocación hacia la banca mixta al combinar labores propias de un banco comercial con las de un banco industrial. Encontramos pruebas de esta actividad en el primer libro de actas del consejo de administración, que abarca desde el inicio de la entidad hasta el 16 de diciembre de 1904.

Las operaciones del Banco de Vizcaya comenzaron en dos sedes que no resultaron idóneas, hasta que en 1903 se toma la audaz determinación de trasladarse a la emblemática dirección del número uno de la Gran Vía, edificio inmortalizado por José Arrúe Valle en su obra *Frente al Banco de Vizcaya*. El inmueble, proyectado en 1903 por José María Basterra –y demolido más tarde por necesidades urbanísticas–, se construye acorde con la tipología de vivienda del ensanche durante los inicios del siglo XX. En el lienzo se aprecia la agitación del día a día en la ciudad, así como un repertorio iconográfico en el que tradición y modernidad conviven con naturalidad (fig. 26).

Al mismo tiempo, en 1901, el Banco de Bilbao llega a un pacto de fusión con el Banco del Comercio, poniendo fin a una competencia que se había prolongado toda una década entre los dos bancos más antiguos de la villa. Ambas entidades mantienen sus marcas distintivas, estableciendo una colaboración estratégica, como podemos comprobar en la selección de documentos presentes en la muestra. Según los estatutos, el Banco del Comercio se convierte en la «segunda marca» del Banco de Bilbao, una asociación que se mantendrá durante casi noventa años.



# Banco de Vizcayaren fundazioa eta Banco del Comercioren eta Banco de Bilbaoren bat-egitea

Mende-aldaketaren garaiko eferbeszentzia finantzarioak banku-sektorearen loraldia ekarri zuen Bilbora, ordura arte sekula ikusi gabekoa. 1901. urtea inflexio-puntu bat izan zen. Hiriaren egoera ekonomikoa argitzen lagundu zuten doitze batzuk egin ziren, eta aldaketa horiek eragin sakona izan zuten hirian: Banco de Vizcaya sortu zen eta Banco del Comercio eta Banco de Bilbao bankuek bat egin zuten (24. y 25. irud.).

1901eko martxoaren 26an, Banco de Vizcaya ospetsua sortu zen, gertaera garrantzitsua Bilboren hazkunderako. Erakunde hori erreferente gisa gailendu zen sektorean, eta hasieratik erakutsi zuen banku mistoa izateko bokazioa zuela, banku komertzial baten lanak eta banku industrial batenak konbinatzean. Administrazio kontseiluaren lehen akta-liburuan bertan (erakundearen sorreratik 1904ko abenduaren 16ra bitartekoan) aurkitzen ditugu jarduera bikoitza horren frogak.

Banco de Vizcayaren eragiketak bi egoitzatan hasi ziren, baina horretarako egokienak ez zirela ikusita, 1903an Kale Nagusiko lehen zenbakira aldatzeko erabakia hartu zen. José Arrue Vallek *Banco de Vizcayaren aurrean* obran hilezkortu zuen eraikina. Etxea —Jose Maria Basterrak 1903an proiektatua eta, geroago, hiriak zituen hirigintza-premiengatik eraitsia— XX. mendearen hasierako zabalguneko etxebizitza-tipologiaren arabera eraiki zen. Mihisean nabaria da hiriko eguneroko bizitasuna, baina baita tradizioa eta modernotasuna elkarrekin naturaltasunez bizi diren errepertorio ikonografiko bat ere (26. irud.).

Aldi berean, 1901ean, Banco de Bilbaok eta Banco del Comerciok bat egiteko ituna sinatu zuten, hiriko bi banku zaharrenen artean hamar bat urtez izandako lehiari amaiera emanez. Bi erakundeek zeinek bere markari eutsi zion, eta lankidetza estrategiko bat bideratu zuten, erakusketan ikusgai dagoen dokumentu sortan ageri denez. Estatutuen arabera, Banco del Comercio Banco de Bilbaoren «bigarren marka» bihurtu zen, eta elkartea ia laurogeita hamar urtez mantendu zen.

Gracias a la riqueza de los fondos que BBVA ha conservado a lo largo de la historia, se ha podido recrear parte de una oficina bancaria del momento, compuesta por un reloj de fichar, una caja fuerte y un escritorio contable con todos sus complementos. También se reúnen ejemplos de aritmómetros de principio de siglo. Estas máquinas, cuya aparición revoluciona la forma en que se realizaban los cálculos matemáticos, permitían automatizar y simplificar los procesos, implicando un aumento significativo de la eficiencia y precisión. Son utilizados en una amplia gama de aplicaciones, desde operaciones básicas, hasta cálculos complejos en campos como la ingeniería, las finanzas y la investigación científica (fig. 27).

Cabe destacar que, de todas las entidades financieras activas a principios del siglo XX en Vizcaya, sólo tres logran sobrevivir, y entre ellas se encuentran la agrupación formada por el Banco de Bilbao y el Banco del Comercio, y el Banco de Vizcaya. El siglo XX marca el arranque de la expansión bancaria mediante la apertura de sucursales: en 1901 el Banco de Vizcaya inaugura filiales en Durango, Markina-Xemein, Mundaka y Ondarroa, y en 1902 abre otra en Elantxobe; ese mismo año el Banco de Bilbao estrena su primera oficina en París, iniciando así su incursión en el ámbito internacional (fig. 28).

Hasta llegar a la situación del actual BBVA queda todavía mucho recorrido, un trayecto que esperamos sea objeto de una futura exposición.



BBVAk historian zehar gorde dituen funtsen aberastasunari esker, garaiko banku-bulego baten zati bat berregin ahal izan da, elementu hauez osatua: fitxatzeko erlojua, kutxa gotorra eta idazmahai bat, osagarri guztiekin. Mende hasierako aritmometro edo kalkulagailu mekaniko batzuk ere badira. Makina horiek iraultza ekarri zuten matematika-kalkuluak egiteko moduan, eta prozesuak automatizatzeko eta sinplifikatzeko aukera ematen zuten, eraginkortasuna eta zehaztasuna nabarmen handituz. Oinarrizko eragiketak zein kalkulu konplexuak egiteko erabiltzen ziren, nola ingeniaritzan, hala finantzetan edota ikerketa zientifikoan (27. irud.).

Azpimarratzekoa da, XX. mendearen hasieran, Bizkaian aktibo zeuden finantza-erakunde guztietatik hiruk bakarrik lortu zutela bizirik irautea. Hain zuzen, horien artean dago Banco de Bilbaok, Banco del Comerciok eta Banco de Vizcayak osatutako taldea. XX. mendean, bankuaren hedapena hasi zen, han-hemen sukurtsalak irekiz: 1901ean, Banco de Vizcayak filialak inauguratu zituen Durangon, Markina-Xemeinen, Mundakan eta Ondarroan; eta 1902an, beste bat Elantxoben. Urte horretan bertan, Banco de Bilbaok bere lehen bulegoa zabaldu zuen Parisen, bere jarduna nazioartekotzeko lehen urratsa emanez (28. irud.).

Egungo BBVAra iritsi arte tarte luzea dago oraindik, eta espero dezagun ibilbide horri buruzko erakusketa bat egiteko aukera ere izatea etorkizunean.

26. irud. / fig. 26
José Arrúe, *Banco de Vizcayaren aurrean*, 1920. Olioa mihisean, 60 × 120,8 cm. BBVA Bilduma / José Arrúe, *Frente al Banco de Vizcaya*, 1920. Óleo sobre lienzo. 60 × 120,8 cm. Colección BBVA

26




COPIA DE LA

ESCRITURA PÚBLICA

DE

Constitución de la Socd. anónima "Banco de Bilbao"

Capital: 20.000.000 de ptas.

OTORGADA POR

ANTE

D. JOSÉ M. CARANDE

Ex-Fiscal Provincial de lo Contencioso-Administrativo Abogado del Estado en excedencia voluntaria y,

POR OPOSICIÓN, NOTARIO DE BILBAO

24


COPIA DE LA

ESCRITURA PÚBLICA

OTORGADA POR

ANTE

D. JOSÉ M. CARANDE

Ex-Fiscal Provincial de lo Contencioso-Administrativo Abogado del Estado en excedencia voluntaria y,

POR OPOSICIÓN, NOTARIO DE BILBAO

25

27



28


## Información gráfica del Banco de Vizcaya

Vista del Banco de Vizcaya, establecido en Bilbao.

Sección de Caja y Contaduría del Banco, durante las horas de oficina.

Caja de valores depositados en custodia y garantía.

Despacho del secretario del Banco de Vizcaya.

«Hall» principal del Banco, en donde los clientes formalizan las operaciones.

El personal del establecimiento: sentados, de izquierda á derecha, Sres. Arizabalaga (contador), Ocharan (director), Ibáñez (secretario) y Escalza (cajero)

Cámara destinada á las cajas particulares acorazadas que pone el Banco al servicio de sus clientes.

Fots. Guill.

Caja de metálico y billetes en el interior de la caja general.

Un ángulo del despacho del Director del Banco

El archivo, situado en los sótanos del establecimiento.

Hoy le toca el turno al Banco de Vizcaya, en nuestro propósito de seguir haciendo información gráfica de cuanto en el país vasco-navarro tenga alguna significación. El Banco de Vizcaya honra á la región. El Sr. Ocharan, director de este famoso establecimiento de crédito desde la fundación del mismo, hase revelado como un notable y competentísimo financiero. Sus habilidades y perspicacia en las gestiones, secundada por la labor de un personal muy inteligente, han colocado al Banco de Vizcaya en primera fila entre las sociedades de su rango.

24. irud. / fig. 24
Banco de Bilbaoren eraketa-eskritura, Banco del Comerciorekin bat egin ondoren, 1901eko martxoaren 28a. Tinta paperean, 45 × 33,5 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Escritura de Constitución del Banco de Bilbao tras su fusión con el Banco del Comercio, 28 de marzo de 1901. Tinta sobre papel, 45 × 33,5 cm. Archivo Histórico BBVA

25. irud. / fig. 25
Banco del Comercioren Administrazio Kontseiluaren lehen akta-liburua, Banco de Bilbaorekin bat egin ondoren, 1902ko uztailaren 19a. Tinta paperean, 32,4 × 22,8 cm. BBVA Artxibo Historikoa / Escritura complementaria de fusión entre el Banco de Bilbao y Banco del Comercio, 19 de julio de 1902. Tinta sobre papel, 32,4 × 22,8 cm. Archivo Histórico BBVA

27. irud. / fig. 27
Thomas de Colmar, Aritmometroa, 1858 ing. Zura eta metala, 22 × 70,5 × 9,4 cm. BBVA Bilduma / Thomas de Colmar, Aritmómetro, h. 1858. Madera y metal, 22 × 70,5 × 9,4 cm. Colección BBVA

28. irud. / fig. 28
Novedades aldizkaria. Banco de Vizcayari buruzko informazio grafikoa, 99. zk. 1911ko maiatza. Tinta paperean, 36 × 60 cm. Bizkaiko Foru Aldundia (Bizkaiko Foru Liburutegia), BBVAren dohaintza / *Revista Novedades. Información gráfica del Banco de Vizcaya*, número 99, mayo de 1911. Tinta sobre papel, 36 × 60 cm. Diputación Foral de Bizkaia (Biblioteca Foral de Bizkaia), donación de BBVA



**Informazio praktikoa**
*Bizkaiko historia ekonomikoaren ikuspegi bat (1857-1905).*
*BBVA Artxibo Historikoaren eta Bildumaren Funtsak*

Archivo Histórico de Euskadi
María Díaz Haroko K., 3, 48013 Bilbo, Bizkaia
+34 94 403 27 80

2023ko abenduaren 21etik 2024ko maiatzaren 5era
Astelehenetik ostiralera, 11.00etatik 19.00etara eta larunbatetan 10.00etatik 14.00etara (Igandetan eta jai egunetan itxita)

Sarrera libre eta doan

Bisita gidatuak doakoak, euskaraz eta gaztelaniaz, Sedenak kudeatuak, asteazkenetan 17:30ean eta larunbatetan 12:00etan. Informazioa jasotzeko eta aurretik izena emateko: exposiciones@sedena.es eta 610 38 24 47 (Al.-Ost., 9:00-14:00)

Gida propioa duten taldeak: aurretik erreserba eginda

**Información práctica**
*Una visión de la historia económica de Vizcaya (1857-1905).*
*Fondos del Archivo Histórico y la Colección BBVA*

Archivo Histórico de Euskadi
María Díaz de Haro 3, 48013, Bilbao
Tel. 94 403 27 80

Del 21 de diciembre de 2023
al 5 de mayo de 2024
De lunes a viernes, de 11.00 a 19.00 h.
y sábados de 10.00 a 14.00 h. (Cerrado domingos y festivos)

Entrada libre y gratuita

Visitas guiadas gratuitas, en euskera y castellano, gestionadas por Sedena, los miércoles a las 17:30 h. y sábados a las 12:00 h. Información e inscripción previa en exposiciones@sedena.es y 610 38 24 47 (L-V, 9:00-14:00)

Grupos con guía propio: necesaria reserva

**Informazio gehiago / Más información**

Tel. 94 403 27 80
www.artxibo.euskadi.eus
www.coleccionbbva.com

EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOA

COLECCIÓN BBVA


**Erakusketa / Exposición**
BBVAk Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin lankidetzan antolatutako erakusketa / Exposición organizada por BBVA en colaboración con la Consejería de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco

**Zuzendaritza / Dirección**
María Luisa Barrio Maestre

**Koordinazioa / Coordinación**
Archivo Histórico y Colección BBVA
María Sanz Pérez

**Testuen zuzenketa / Corrección de textos**
Inés D'Ors

**Itzulpena / Traducción**
Rosetta Testu Zerbitzuak

**Zaharberritzea / Restauración**
Alizaria Arte, S.L.
Marcalagua, S.L.
María Álvarez Recuero

**Diseinu museografikoa / Diseño museográfico**
Zorrozua y Asociados S.L.

**Garraioa eta muntaia / Transporte y montaje**
InteArt, S.L.
Severiano Servicio Móvil S.A.

**Aseguruak / Seguros**
BBVA Broker. Correduría de Seguros y Reaseguros

**Diseinua, maketazioa eta inprimaketa / Diseño, maquetación e impresión**
Lucam



© argitalpenarena eta testuena /
de la edición y textos: BBVA

Argazki kredituak / Créditos fotográficos:
© Archivo Histórico BBVA
© Colección BBVA
© David Mecha Rodríguez

Argitaratzaileek ahalegin guztiak egin dituzte argitalpen honetan erreproduzitutako irudien eskubideen gordailuzainekin harremanetan jartzeko. Gorabeheraren bat balego, zinez eskertuko genuke BBVAri jakinaraztea, aurrera begirako berrargitalpenetan egin beharreko zuzenketak egin ahal izateko. / Los editores han hecho todo lo posible por localizar a los depositarios de derechos de las imágenes que se reproducen en esta publicación. En caso de existir alguna incidencia, se ruega sea comunicada a BBVA para poder subsanarla en una posterior reedición.



DL: M-34192-2023

BBVA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

ARTXIBO

EUSKADIKO
ARTXIBO
HISTORIKOA